GAIA: <u>TOLOSAKO UDALEKO KULTURA, FESTAK ETA GAZTERIA SAILAK ANTOLATUTAKO IKASTAROAK EMATEKO ZERBITZUA KONTRATATZEKO PRESKRIPZIO TEKNIKO PARTIKULARREN PLEGUA</u>

Xedea.

Tolosako udalak 1987an Antonio Maria Labayen kultur etxea zabaldu zuenetik, eraikin honetan herritarrentzako aisialdian formakuntza aberasgarri eta positibo bat jaso dezan aukerak eskaini nahi izan ditu.

Eduardo Mokoroa musika eskolak musikaren arloan herritarrei formazio ez erreglatua eskaintzen dien bezala, Antonio Maria Labayen kultur etxeak beste arlo batzuetan gizarteratzeko eta, aldi berean, afizio osasungarriak garatzeko balioko dien eskaintza egin nahi die.

Honetarako antolatzen dira pintura, zeramika, argazkigintza, antzerkia, baleta, dantza ea ehozirietako ikastaroak, eta zerbitzu honekin aurrera jarraitzeko arrazoia urtero errepikatzen den matrikulazio eta parte hartze ugaria.

Eskaintza zabaltzeak eta matrikulen gorakadak beharrezkoa egin du kultu-etxeaz gainera, beste eraikin batzuetaz baliatzea. Honegatik, Gorosabel izeneko eraikinean ere emango dira ikastaroak.

Kontratu honen helburu zuzena da:

- Kultur etxean nahiz beste eraikin batzuetan departamentuak antolatutako ikastaro hauek ematea :pintura, zeramika, baleta, dantza garaikidea, antzerkia, argazkilaritza eta ehoziriak.

- Hauetaz gainera, hitzarmenak irauten duen bitartean Udalaren eta kontratatuaren artean adostutako beste ikastaro batzuk ematea, Udalaren nahiz enpresaren iniziatibak sortua

Prestazioa emateko baliabideak

Enpresak kontratua garatzeko ikastaroak emateko pertsonala eta beharrezko materialak jarriko ditu.

Instalazioa kudalak jarriko ditu.

Izen-emateak, zerrendak eta kobraketak udalak egingo ditu.

Zerbitzuaren komunikazioa (kartelak, web-a, sare sozialak....) udalak egingo du.

ESKUb3ace01d-aed7-42a2-b131-646eaa4963e1

Kontratuaren ezaugarri nagusiak eta

- Kontratua osatuko duten kontzeptu nagusiak hauek dira: irakaskuntza, alde batetik, eta dantza eta balet ikastaroko irakasle taldearen koordinazioa, bestetik.

- Eskainiko diren ikastaroak hauek dira eta iraupen honetakoak:

GAIA	IKASTAROKO ORDUAK	ORDUTEGI ERREFERENTZIALA	PERTSONALA
Antzerkia	180 ordu	Astean hiru egunetan , bi orduko saioak, bi talde desberdinetan	1
Argazkigintza	200 ordu	Astean bi egunetan, ni orduko saioak, talde bakarrean	1
Ehoziriak	120 ordu	Astean lau orduko saio bat, talde bakarrean	1
Eskulanak	120 ordu	Astean bi orduko bi saio. Bi talde	1
Pintura	720 ordu	Astean bi orduko bi saio. Sei talde	2
Zeramika	360 ordu	Astean bi orduko bi saio. Hiru talde	1
Baleta	600 ordu	Astean ordu bateko bi saio. Hamar talde	2
Balet aurreratua	45 ordu	Astean ordu eta erdiko bi saio Talde bat	1
Puntak	120	Astean ordu bateko saioa Lau talde	1
Dantza garaikidea	90 ordu	Astean ordu eta erdiko bi saio Talde bat	1
Koordinazioa	135 ordu	Ez dauka astekako	1

ESKUb3ace01d-aed7-42a2-b131-646eaa4963e1

		banaketarik, egoerak agintzen duen eran beteko da ordutegia	

- Eskaintza hau urriaren hasieratik ekaina bukatu artekoa izango da. Hala ere, uztailean edo irailean ikastaro bereziak egiteko posibilitatea aurrikusten da.

- Ikasturtean, Aste Santuko,Eguberritako eta Inauterietako oporretako lan egunak kenduta, 30 aste emango direla kalkulatzen da.

- Klaseak goizez eta arratsaldez eman ahal izango dira.

- Kontratuaren arduraduna: Jokin Ansorena Miner

- Kontratuaren partida honakoa da: 0800 227.04.33411

- Partidaren izena: Kultur Tailerrak, Irakasleen kontratuak

- Prezioa ordaintzeko modua.: Hilabetero faktura bat luzatuko da, hilabete horretako zerbitzu guztiak bilduko dituena

- Kontratua gauzatzeko epea: 2 urte, 2 urtetan luzagarria

Kontratuaren segimendua

Ikastaroak urrian hasi eta ekainean amaituko dira.

Hilabetero egingo dira enpresako ordezkarien eta kontratu arduradunaren arteko bilerak, eta hauetan aztertuko dira:

- Taldeen egoera: kuantitatibo nahiz kualitatiboa
- Irakasleen gorabeherak, horrelakorik egon baldin bada.
- Zerbitzua emateko udalak jarritako baliabideen egoera: berritu edo aldatu beharreko materialak, erosi beharreko material didaktikoa.
- Ikasleen nahiz irakasleen kexa eta iradokizunak, halakorik baldin badago.
- Lehenengo edo bigarren hilabetekoan erabakiko da zein den urte amaierarako ikasturteko lanaren erakusgarri egingo den obra.

Hiru hilabetero atal bakoitzeko irakasle edo taldeko arduradunarekin egingo da bilera, denbora honetan emandako zerbitzuaren balorazioa egiteko:

- Helburuen betetze maila
- Hobetu beharreko alderdi didaktikoak

ESKUb3ace01d-aed7-42a2-b131-646eaa4963e1

- Antolaketaren azterketa

Ikasturtearen amaieran, balorazio orokor bat egingo da eta bertan aztertuko dira:

- Taldeen eboluzioa: bajak, altak, adinak...
- Hurrengo ikasturterako egind daitezkeen hobekuntzak
- Urte amaierako ekitaldien emaitzak(antzerki-lana, dantza jaialdia, erakusketak.....)

Hauetaz gainera, gorabeheraren bat sortzen den bakoitzean jarri ahal izango du harremanetan kontratuaren arduraduna enpresako ordezkariarekin momentuko erantzuna behar duen egoera baldin bada, nola jokatu adosteko.

Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKUb3ace01d-aed7-42a2-b131-646eaa4963e1**
Dokumentu elektroniko honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronokoan: ***https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07110***
Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: ***https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07110***